

Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

Manifestu hau sinatzen dugun eragile eta norbakook zera adierazi nahi dugu:

Urtarriletik apirilera bitartean, hezkuntza publikoko irakasleen kolektiboan %90eko ordezkartza duten **STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuak, bederatzi greba egun deitu dituzte**. Orain arte luzatutako proposamenek ez diete erantzun egokirik ematen aldarrikatutako edukiei. Izan ere, **eduki, zehaztapen eta bermeak falta direla adierazi dute behin eta berriro**.

Orain arte egindako greba eta mobilizazio arrakastatsuek segida izango dute beste 5 **greba egunekin maiatzaren 12, 13, 14, 15 eta 16an**. Hortaz, oraingoan, grebak babestu eta aldarrikapenekin bat egiten dugula adierazten dugu. **Hezkuntza komunitatea kalera ateratzera gonbidatzen dugu maiatzaren 10ean, larunbata, EAEko hiriburuetan antolatuko diren manifestazioetan**.

Greba ziklo honetan zehar, Hezkuntza publikoa indartzeko beharrezko **aldarrikapenekin bat egiten dugu eta argi eskatzen diogu Hezkuntza Sailari:**

- Irakasleen aldarrikapenak entzun eta erantzun (lan-zamak arintzeko neurri zehatzak, plantillen gazteberritzea, galdutako erosahalmena berreskuratzea,...)
- Baliabide eta inbertsio gehiago eskola publikoarentzat.
- Enplegu publikoa egonkortu eta bermatu.
- Eskola publikoa, euskalduna, feminista eta propioa bermatu.

Argi daukagu lan-baldintza egokiak eta hezkuntza publikoa indartzea eskutik doazela, bata bestea gabe ezinezkoa dela, alegia. Eusko Jaurlaritza irakasleen eskaerak entzun eta hauei erantzun beharrean, grebak desitxuratzeko saiakeretan dabil, horregatik, **hezkuntza komunitatea osatzen dugunok elkartzeko unea iritsi dela uste dugu**.


Hezkuntza Sailak negoziatzeko atea zabalik duela adierazi du baina zehaztapena eta konkrezioak behar direla deritzogu gatazka hau bukatu eta langileon lan baldintzak hobetuz, eskola publikoa sistemaren ardatza izan dadin.

Era berean, azken hilabeteetan Hezkuntza Sailak aldebakarrez erabakita Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako **zenbait ikastetxe publikoen fusio eta itxierak jarri ditu martxan hezkuntza komunitatea aintzat hartu gabe**.

Hala, **maiatzaren 10ean**, larunbata, denak elkartu eta **manifestazioak** egingo ditugu EAEko hiru hiriburuetan. Donostian, arratsaldeko 17:00etan, eta Bilbo eta Gasteizen 18:00etan.

DENOK KALERA!





Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

Los agentes y personas que suscribimos este manifiesto expresamos:

Entre enero y abril, los sindicatos con una representación del 90% en el colectivo de docentes de la enseñanza pública, **STEILAS, LAB, ELA y CCOO**, han convocado **nueve jornadas de huelga**. Las propuestas realizadas hasta ahora no dan una respuesta adecuada a las reivindicaciones. De hecho, **insisten en la falta de contenidos, concreciones y garantías**.

Las exitosas huelgas y movilizaciones realizadas hasta ahora tendrán continuidad con otras 5 jornadas de **huelga los días 12, 13, 14, 15 y 16 de mayo**. Por lo tanto, en esta ocasión, apoyamos las huelgas y manifestamos nuestra adhesión a las reivindicaciones. **Invitamos a la comunidad educativa a salir a la calle en las manifestaciones que se organizarán el sábado 10 de mayo en las capitales de la CAV.**

A lo largo de este ciclo de huelga, **nos sumamos a las reivindicaciones** necesarias para reforzar la Educación pública y **pedimos claramente al Departamento de Educación:**

- Escuchar y responder a las reivindicaciones del profesorado (medidas concretas para aliviar cargas laborales, rejuvenecimiento de plantillas, recuperación del poder adquisitivo perdido,...)
- Más recursos e inversiones para la escuela pública.
- Estabilizar y garantizar el empleo público.
- Garantizar una escuela pública, euskaldun, feminista y propia.

Tenemos claro que las adecuadas condiciones laborales y el fortalecimiento de la educación pública van de la mano, es decir, que una sin la otra es imposible. El Gobierno Vasco, en vez de escuchar y responder a las peticiones del profesorado, está intentando desvirtuar las huelgas, por eso, **creemos que ha llegado el momento de juntarnos toda la comunidad educativa.**

El Departamento de Educación dice que tiene la puerta abierta a negociar pero creemos que las concreciones son necesarias para dar fin a este conflicto, mejorar las condiciones laborales de las trabajadoras y para que la escuela pública sea el eje del sistema.

Asimismo, en los últimos meses, el **Departamento de Educación ha decidido unilateralmente poner en marcha fusiones y cierres de centros públicos** de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa sin contar con la comunidad educativa.

Por todo ello, el sábado **10 de mayo** nos juntaremos y realizaremos **manifestaciones** en las tres capitales de la CAV. En Donostia, a las 17:00 de la tarde y en Bilbao y Vitoria-Gasteiz, a las 18:00.

DENOK KALERA!



manifiesto